

Hogeita bost urte bete ditugu...

ESKOLA ANTZERKI ERAKUSKETA

Irakurle preziatuak:

Aurten ere leiho informatibo honetara agertzen gara San Juan Jaietako egitarauaren eskutik.

Bi arrazoiengatik egiten dugu: alde batetik, festara eta dibertsiora gonbidatzeko eta bestetik, zorionak abesteko Eskola Antzerki Erakusketak hogeita bost urte bete dituelako.

Ekintzaile eta kementsua, pasio eta tradiziotan jakituna den gure Eibar, herri zalapartatsu eta erakargarrian bihurtzen da eta maitekor irekitzen ditu bere besoak, inor, berdin delarik bere jatorria, ez dadin arrotz sentitu bere magalean. Urtero bezala, beti bezala, sekula bezala, ohiturak agintzen duen bezala erritu solemnearen bitartez, hiria bete egingo da San Juan jai nagusietako propio diren alaitasun eta munduko plazer ederrekin.

Aukera honetaz baliatzen gara zenbait gauza gogoratzeko. Aurten Eskola Antzerki Erakusketak hogeita bost urte betetzen ditu, apalik eta isilik heldu zaigun urtebetetzea. Hala eta guztiz, nahiz eta zenbakiak hotzak izan, aurtengo egitarauaren agurretik jaso ditugun hauek uste dugu garrantzitsuak eta kuttunak direla: *“...adin desberdinetako zortzi mila ikaslek, laurehun irakaslek zuzendutako mila antzezlan baino gehiagotan parte hartu izan dute, guztira hirurehun bat funtzio osatu direlarik. Jatorri desberdinetako konpainia profesionalek, joera askotako laurehun emanaldi baino gehiago antzeztu dituzte. Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mutriku, Soraluze eta beste herri batzuetan, bertan ehun eta berrogeita hamar mila ikusle baino izan direlarik. Eta oraindik gehiago dago.”*

Uste dugu arrakasta honek arrazoia ematen digula, bere balore eta muinarengatik apustu egin genuenoi. Dibertitu eta entretenitu egiten du, elkarbizitza, partaidetza eta sormena bultzatzen ditu. Beraren bitartez, baliabideak partekatzen dira, eta desberdintasunak bultzatzen dira berdintasunerako bidean. Irakaskuntza giroan murgilduta dauden pertsonen sostengua behar du, noizbehinka agertzen diren etsipenean eta duda-mudan ez erortzeko.

Jarduera honekin konprometituta gauden pertsonok maitasun berezia sentitzen dugu. Eskola Antzerki Erakusketa gure Jardunaldien oinarria da. Beste batzuekin batera, Erakusketa apustu zuhurra eta tresna paregabea da ume eta gazteentzat, zeren irakasten baitie nola jokatu behar den gure gizartean orain diren eta etorkizunean etorriko diren aldaketen aurrean. Azken finean, bizitzari buruzko ariketa humanista bat baino ez da, haize fresko bolada bat baino, esaldi bakarrean esan da, ume eta gazteak bultzatutako sormena gure ume eta gazteentzat.

Erakusketaren urtebetetze honetan ezin dugu bere jarraikortasuna opatu baino. Martxan dagoen zerbait da eta askoren sostengu ordaingaitza jasotzen du, besteak beste: Eibarko Udala, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, zenbait giza eta kultur entitate, erakunde eta elkarteena (bakoitzak ahal duen neurrian) eta kultur jarduera bizia dela uste duten hainbat pertsonena. Guzti hau jakitea komeni da.

Lagunak guztiok, jaietan gaude. Egun hauetan, ilargia herabetsu ezkututzen denetik, eguzkiak lotsagabe bere aurpegia ateratzen dueneraino, ospatu dezagun dibertsio ozenaren fantasia.

Eibar 2009ko ekaina
José María Cornago

Amigas y amigos lectores:

Un año más nos asomamos a esta ventana informativa de la mano del programa de fiestas de San Juan.

Lo hacemos por dos motivos: para invitar a la alegría y la diversión y para entonar el zorionak por los veinticinco años de nuestra Muestra de Teatro Escolar.

Eibar, nuestra ciudad, emprendedora y animosa, que sabe mucho de pasiones y tradiciones, se vuelve bulliciosa y seductora y se abre amorosa para que nadie se sienta extraño en ella, venga de donde venga. Como todos los años, como siempre, como nunca, como manda la costumbre, el solemne ritual de acercar a la ciudad el gozo y los placeres terrenales que acompañan a nuestras fiestas mayores de San Juan.

Aprovechamos el momento para hacer un sano ejercicio de recordación. Este año la Muestra de Teatro Escolar cumple veinticinco años, un aniversario que ha llegado sin hacerse notar. No obstante, a pesar de que las cifras son frías, estas que entresacamos del saludo que contiene el programa de esta edición, se nos antojan importantes y entrañables: *“... más de ocho mil escolares de todas las edades han actuado en cerca de mil obras de teatro, dirigidas por más de cuatrocientos profesores y han realizado más de trescientas funciones. Compañías profesionales de las más diversas procedencias han realizado más de doscientas funciones de teatro de todos los estilos. Más de ciento cincuenta mil espectadores han acudido a las funciones de grupos escolares y compañías profesionales que han tenido lugar en Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mutriku, Soraluze... y hay mucho más.”*

Creemos que este éxito nos da la razón a los que, tras un estudio sin improvisaciones, hemos apostado por sus valores y sus esencias. Divierte y entretiene; ejercita la convivencia, la participación, la creatividad. A través de ella se comparten medios y motiva las diferencias para instalarse en la igualdad. Necesita del apoyo incuestionable de las personas inmersas en la enseñanza para salvarla, aunque sea a trancas y barrancas, de esos momentos, que los hay, donde quiere hacer presa el desaliento.

Las personas que nos hemos comprometido con esta actividad, sentimos un especial cariño. La Muestra de Teatro Escolar es el fundamento de nuestras Jornadas. Son una apuesta certera, entre otras muchas, de orientar nuestra sociedad hacia los apasionantes cambios futuros por encima de los avatares del presente. Son, en fin, un ejercicio humanista sobre la vida misma, una racha de aire fresco, una creación, en la medida en que es posible, propiciada por nuestros niños, niñas y jóvenes, para nuestros jóvenes, niños y niñas.

En este aniversario no hay sino desear la continuidad. Es algo que está en marcha, que cuenta con el apoyo inestimable del Ayuntamiento de Eibar, del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, de otras instituciones, entidades y asociaciones, cada una en la medida de sus posibilidades, así como de cuantas personas creemos que es una actividad cultural y viva. Conviene que se sepa.

Amigas y amigos todos, estamos en fiestas. Durante varios días, desde que la luna se aleje con timidez y el sol se anuncie con descaro, vivamos la fantasía de la vibrante diversión.

Eibar, junio de 2009
José María Cornago.